



EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO POLIZIAREN KONTROL
ETA GARDENTASUN BATZORDEA elkartu da, bigarren deialdian,
Vitoria-Gasteizen, 2022ko martxoaren 30eko 15:45ean, Administrazioak
utzitako lokalean eta kide hauek bertaratu dira:

Juan Luis Ibarra Robles jauna, batzordeburua
José Antonio Nieto Antón jauna
Estefanía Ocariz Passevante andrea
Miren Ortubay Fuentes andrea
Ricardo Egiguren Mendieta jauna
Francisco Javier Hernáez Manrique jauna, idazkaria

Lehenengo puntua.- 2022ko otsailaren 25eko akta onartu da.

Bigarren puntua.- Lehenengo lehendakariorde eta Segurtasuneko sailburuak 2022ko otsailaren 18an eskatutako txostena dela eta, Sailak zein Vitoria-Gasteizko Udalak emandako dokumentazioa jaso dugu, honi buruzkoa: Ertzaintzak eta Udaltzaingoen erabili beharreko grabaketa bideografikoko kamerak eta horiekin lotutako protokolo eta proiektuak. Hortaz, eztabaida bat egin zen dokumentu horiei buruz zein horiei egin zekizkiekeen ekarpenei buruz, eta une batean erabaki zen hurrengo bileran edo bileretan eztabaidatzen jarraitzea, kontuan hartzeko Arartekok eta SOS Arrazakeriak gaiarekin lotuta aurkeztutako aurrekariak.

Hirugarren puntua.- Kontrol eta Gardentasun Batzordeak aztertzen jarraitzeko helburua duenez, aho batez, hau erabaki da:

“Segurtasun Sailari informazio osagarria eskatzea, Batzorde honi helarazi zaizkion egitateak direla eta, agente esku hartzaileen jarduketari buruz barruko ikerketa egin den jakiteko.
Erantzuna baiezkota bada, ikerketa horren edukia eta emaitza helarazteko eskatzen da”.

Eta lantzeko gai gehiagorik ez dagoenez, bilera amaitu da egun horretako 18:30ean.